



188. zenbakia

· ABUZTUA 2019 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia,
Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun,
Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu,
Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier,
Facebooken parte hartzen duzuenoi,
etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain,
Txurdan eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Itziar Perez eta Garazi Zabaleta

TIRADA

1.600 aleak

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Ardi jeztea eta ile moztea

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira Irailaren 2 an bidalia

Olerkia



Oinez irakatsi dizun hori

“

hotza da familia inoiz
kalean ahaztu oinetakoa da familia inoiz
arrotza
oinutsik ibili eta berriz janztean
zure oinetara egina dagoela ohartzen zarena

ibiltzeko da familia
kalean ahaztu oinetakoa da
larruzkoa zikindua emana
oinetz irakatsi dizun hori da familia
lurrarekin lotzen zaituena
zulatzean aspertzean
oinetakoak bezain erraz aldatu ezin duzuna

espaloietan dago familia
kalean ahaztu oinetakoa da
leihotik botatuko haserrearekin
eskailera jaitsi
eskuetan hartu eta
berriz janzteko beharra duzuna

”

Leire Bilbao

Scanner (2011, Susa)



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Egunero irratsaioa bueltan da

irailaren 16tik aurrera

goizeko 10:00etan ZUZENEAN

errepikapenak: 13:30ean eta 20:00etan





“Goizeko getan alde egiten nuen, ukuiluetara, mendira, eta edozein tokitara, egun osoa kanpoan ematen nuen. Oroitzapen oso politak ditut, bai”

Restituto Oiartzun eta Rosario Etxandi gurasoak iraizoztarrak zituen, baina Iruñean jaio zen bera, Burlatan jatetxe bat jarri baitzuten gurasoek. Joseba Oiartzun Etxandik, ordea, gurasoen kontrako bidea egin du: 40 urte bete ondoren emaztearekin Iraizotzen egin zuen etxea. Eskualdearekiko harremana estua du, gainera: duela 25 urte inguru, Pulunperen hastapenetan, ‘Kalean galdezka’ atala idazten zuen; eta Esan Erranen ere saio bat egiten zuen. Orain, konpromisoa mantentzen du beste modu batean: Pulunpeko banatzailea da Iraizotzen.

● PULUNPE ASKO BANATZEN AL DIRA IRAIZOTZEN?

100 aldizkari banatzen ditut, nik uste gehien jasotzen dituen herrietako bat dela Iraizotz. Herrian 80 eta txaletetan 20 banatzen dira.

● ZU IRUÑEAN BIZI ZINEN, EZTA?

Gurasoak, biak, Iraizotzkoak ziren. Gure hiru anaia zaharrak Ultzaman jaio ziren

eta bi gazteok, ni tartean, Iruñean jaio ginen. Ni 40 urte bete arte bizi izan nintzen Iruñean, orduan etxea egin genuen hemen eta hona etorri ginen bizitzera. Gurasoak Iraizotzen bizi izan ziren ezkondu arte, Gerendiainen eta Lizason gero, Iruñera joan aurretik. Ostalariak ziren eta bertako ostatuak eraman zituzten. Azkenik jatetxe bat jarri zuten Burlatan, Loperena jatetxe famatua. Bertan bizi da ama oraindik; aita, ordea, duela 10 urte hil zen.

● BAINA, NAHIZ ETA IRUÑEAN BIZI, UMETAKO OROITZAPENAK BA AL DITUZU IRAIZOTZEN?

Bai, maiz etortzen ginen, gainera lagun asko nituen herrian. Horregatik erabaki genuen hona etortzea. Oroitzapenak, bai, oso onak. Gogoratzen dut goizeko getan alde egiten nuela, ukuiluetara, mendira, eta edozein tokitara, egun osoa kanpoan ematen nuen. Oroitzapen oso politak ditut, bai. Orain asko aldatu da... ateratzen dira, baina jende gehiago gogoratzen dut kalean nire garaian.

● EMAZTEAREKIN ETA SEME-ALABEKIN BIZI ZARA HEMEN, ORDUAN?

Bai. Emaztea Donostiakoa da baina harremana bazuen Ultzamarekin:

haren gurasoek etxe bat dute Eltson, eta horregatik ezagutu genuen elkar. Bera arkitektoa da, etxearen proiektua berakegin zuen. 10 urteko seme bat eta 4 urteko alaba ditugu, Larraintzarren ikasten dute.

● ETXEAN LAN EGITEN HARRAPATU ZAITUT, JOSEBA, ZEIN DA ZURE LANBIDEA? Gamesan egiten dut lan, errota egiten dituzte bertan. Urte batzuk bidaiatzea tokatu izan zait baina haurrak izan ondoren, bereziki bigarrena izan eta gero, ia beti bulegoan izaten naiz, Sarrigurenen. Orain baimen ugari ematen dizkigute, bi egun etxetik egin dezaket lan.

● ZER IKASI ZENUEN?

Salesianos Lanbide Heziketa ikasi nuen, mekanika. Gero, 3 urtez Danonen, hemen Iraizotzen, egin nuen lan. Ondoren, 2007. urtera arte, 7 urtez enpresa holandar batean egin nuen lan, behiak jezteko makinak egiten zituen enpresa batean. Lan oso polita izan zen hura, oso gustura egon nintzen. Enpresa Rotterdamen zegoen baina makinak mundu osoan zabaltzen zituen, nire lana ukuiluz ukuilu joatea zen, Euskal Herrian barna eta baita Sorian ere.



▲ Joseba Oiartzun



LOREA BASTERRETXEA – Argazki lehiaketako irabazlea

“ARDI JEZTEA ETA ILE MOZTEA”

● Hasteko eta behin, zorionak Lorea...

Eskerrik asko! Oso pozik nago, ez nuen sari hau espero. Sorpresa handia izan da niretzat, azken momentuan atera bainuen argazkia.

● Zer da zure argazkian ageri dena, zer irudikatu nahi izan duzu?

Argazkia Larraintzarren atera nuen Gaztanbera Egunean. Ardi jeztea eta ile moztea ikusten da bertan. Gustatu zitzaidan argazki bakarrean bi jarduera ezberdin islatzen direlako: mutiko bat ikusten da esnea jezten, eta aldi berean, ardi batzuk ile luzearekin eta horietako bat ile jada moztuarekin ikusten dira.

● Kostatu zitzaizun argazkia egitea?

Argazkia egitea baino gehiago titulua aukeratzea kostatu zitzaidan. Bi jarduera ezberdin ikusten zirenez, ez nekien bietako zeini eman garrantzia. Orduan, pentsatu nuen bakoitzak interpreta zezakeela argazkia bi modu ezberdinetan, eta horregatik erabaki nuen titulua deskripzio hutsera mugatzea.

● Lehenagotik pentsatua zenuen argazkia ala momentuan bertan bururatu zitzaizun?

Egia esan, hasieran beste argazki bat nuen pentsatuta, paisaia ageri zen argazkiren bat, baina azken momentuan ikusi nuen ezin zela paisaia soilik ageri zen argazkirik aurkeztu eta orduan bururatu zitzaidan gaztanberaren egunera joatea argazkiak ateratzera. Ardiekin zerikusia zuen argazkiren bat nuen

buruan, baina ez nekien zehazki zer.

● Normalean paisaiarekin lotutako argazkiak dituzu gustuko, beraz.

Bai, paisaia asko gustatzen zait, eta ez nago paisaiak ez diren gauzei argazkiak ateratzera ohituta. Lehiaketa hau erronka moduko bat izan da niretzat, eta bestelako argazkiak ateratzeari ere gustu pixka bat hartzeko balio izan dit.

● Aspalditik al datorkizu argazkilaritzarako zaletasuna?

Nire lehen argazki kamera ona 15 urterekin erosi nuen, eta pixkanaka-pixkanaka nire kabuz ikasten joan naiz. Iazko argazki lehiaketara aurkeztu nintzen lehen aldiz, eta bigarren saria irabazi nuen. Horrek ilusio handia eman zidan eta jarraitzea erabaki nuen.



‘Ardi jeztea eta ile moztea’ ▲



Lorea Basterretxea ▲



ALFREDO GARCÍA-FALCES – Argazki lehiaketako 2. saria

‘IKURRIN DANTZA’

● Lehiaketako bigarren saria jaso duzu. Espero al zenuen?

laz lehen saria jasota, ez da iazkoa bezain besteko sorpresa izan. Gainera, lehiaketa lokala izanik, pentsatzen dut ez direla hainbeste argazki aurkeztuko eta sariren bat irabazteko aukera gehiago egonen direla beste sariketa batzuekin alderatuta. Nik eskualdeko jendea animatzen dut parte hartzera, oso sari onak baitaude lehiaketa txikia izateko.

● laz hartu zenuen parte lehen aldiz?

Ez, aurtengoarekin jada lau bat urte egin izan ditut lehiaketa honetan parte hartzen.

● Kontaiguzu, zer ageri da zure argazkian, zer erakutsi nahi izan duzu?

Durango aldeko dantza bat da bertan ikusten dena, Agintariarena, guk hemen

Ikurrin dantza deitzen dioguna. Duela bi urteko Lizasoko festetako eszena bat da, eta iruditzen zitzaidan oso ongi irudikatzen duela festetako giro hori: plaza beteta ageri da, jendea leihotatik begira, guztiak dantza horren bueltan bilduta, ikurrina bezalako ikur bati begira. Dantzaren inguruan egoten den giroa oso ongi azaltzen da.

● Argazki-moldaketak baditu zure lanak.

Bai, dantzako protagonista ikurrina denez, argazki osoa txuri-beltzean jarri nuen bandera izan ezik. Dantzan bertan begirada guztiak erakartzen dituen da ikurrina, eta argazkian ere hori bilatu dut nik.

● Noiztik duzu argazkilaritzarako zaletasuna?

Betidanik. Nire aita bazuen argazki

kamera, eta hark kamera berriak erosten zituenean zaharrak nik jasotzen nituen. Txuri-beltzean hasi nintzen, gero kolorera pasatu... Gehien kostatu zitzaidana digitalerako salto hori ematea izan zen: urteak kostatu zitzaidan. Parentesi moduko bat izan zen, baina nire emazteak kamera digital bat oparitu zidanean berriz ere engantxatu nintzen.

● Zer motako argazkilaritza duzu gustuko?

Gehienbat paisaia argazkilaritzan aritzen naiz: txoriak, animaliak, eta horrelakoak. Argazkilaritza mendira jotzeko aitzakia da niretzat. Argazki soziala egitea gehiago kostatzen zait, horregatik erreskatatu behar izan dut argazki zahar hau. Baina beno, estilo honetako argazki gehiago egiten hasi beharko naiz orain!



▲ Alfredo García-Falces



▲ ‘Ikurrin Dantza’



RUBEN BASTERRETxea – Argazki lehiaketako 3. saria

‘BELAUNALDIZ BELAUNALDI’

● Espero al zenuen saria, edo sorpresaz hartu zaitu?

Ez, ez nuen espero. Pasa zen urtean nire arrebarik bigarren saria irabazi zuen, eta orduan pentsatu nuen, ‘aurten saiatuko naiz nire arrebaren laguntzarekin argazkiren bat aurkezten’. Baina saririk ez nuen espero, egia esan.

● Aurten zen argazkia aurkezten zenuen lehen aldia, beraz?

Bai. Ez naiz oso aditua argazkilaritzan, baina arrebari askotan ateratzen dizkiot argazkiak eta beno, probatzeko gogoia banuen. Berak sartu dit argazkilaritzarako afizioa.

● Azaldu, zer irudikatu nahi izan duzu zure argazkian?

‘Belaunaldiz belaunaldi’ izenburua jarri nion argazkiari. Zergatik? Bada, familia bakoitzak taloa egiteko orduan nolabait bere sekretua du, ezta? Eta sekretu edo errezeta hori belaunaldiz belaunaldi pasatzen doa. Hori da tituluarekin eta argazkiarekin irudikatu nahi izan dudana.

● Noiz eta non atera zenuen argazkia?


Mamiaren egunean atera nuen, Larraintzarren (Ultzaman).

● Lehenagotik argazkilaritzarekin harreman gutxi zenuela esan duzu...

Bai, nire arrebari argazkiak ateratzen nizkion baina hori zen orain arte argazkilaritzarekin nuen harreman bakarra. Hasi berria naiz honetan. Sari honek motibazio gisa funtzionatuko du, agian.



‘Belaunaldiz belaunaldi’ ▲



Ruben Basterretxea ▲



Eurovelo bizikleta bidearen obrak hasi dituzte Basaburuan

Uztailaren 9an hasi zituzten obrak eta abuztu bukaeran amaitzea aurreikusten zen arren, gehiago luzatuko dira. Orokietako gaina, Erbiti, Gartzaron, Jauntsarats, Ihaben eta Etxaleku zeharkatuko ditu bideak.


Basaburuan lurra altsatzen hasi dira makinak, apeztegi berriko parean dagoen zelaia arte, momentuz. Puntu horretan, hain zuzen ere, zebrabidea egin eta errepidera aterako da bidea. Gero, Jauntsarasko farmaziaren parean berriro errepidetik atera eta Gartzarona eginen duten bidetik jarraituko du.

Jauntsarasko pasaderetako aisialdi eta bainu gunean ere eragina izan dute obrek. Zenbait gune hesiekin itxita daude erreka inguruan. Basaburuko Udalak webgunean adierazi du obren datak aldatzeko saiakera egin zutela, baina eguraldi oneko hilabeteak aprobetxatu nahi izan dituztela lanak aurreratzeko: “epearen premia dela eta, eguraldi oneko hilabeteak aprobetxatu nahi dituzte eta horregatik ez da atzeratzeko aukerarik izan”. Obrak Nafarroako Gobernuak hartu ditu bere gain. “Tamalez, obrek momentuko molestiak sorrarazi ahal dituzte, baina ziur gaude Basaburuaren onerako izanen direla etorkizunean”.

Obraren zatirik handiena abuztuaren bukaera arte luzatuko zela ere zioen Basaburuko Udalaren webguneak,

eta orduan seinalizazioarekin hasiko zirela, baina momentuz zati handi bat egiteke dagoela ematen du, gehiago luzatuko dira, beraz.


Europa osoa zeharkatzen duen bizikleta ibilbidea da Eurovelo, Norvegian hasi eta Lisboan bukatzen dena. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu duen obra da abian dutena, Europako fondoekin finantzatutakoa.



Jauntsarasko erreka inguruan zenbait gune itxita egon dira ▲



▲ Makinek lanean jarraitzen dute





Bi enpresa hasiko dira lanean Ultzamako udaletxean dagoen Cowworking gunean

Uztailaren 31n bukatu zen eskaera egiteko epea, eta abuztuaren 22a arte izan du udalak eskaria onartu edo ezeztatzeko. Bidali zuten bi enpresek lortu dute esleipena, bata arkitektura arloan egiten du lan, besteak zerbitzuetan.

Bulegoak 9 gune ditu lan egiteko. Partekatutako gela batean 8, eta bulego pribatu 1. Esleipenak burututa, bi besterik ez dira erabiliko momentuz. Martin Pikabea, Ultzamako alkatea: “gehiago izatea gustatuko litzaiguke, lau gutxienez, baina, bai, abian jartzea lortu dugu, behintzat”.

Hilean 50 euroan alokatzen dira partekatutako direnak, eta hilean 75 euro da bulego pribatuaren prezioa. Guztiak BEZa kontuan izan gabe. Esleipena lortu duten bi enpresa hauek 2023ko irailaren 1a arte erabili ahal izanen dute.

Ultzama Cowworking Gunea Larraintzarreko udal eraikinaren hegaletako batean kokatzen den instalazioa da. Bere helburua enpresa eta profesionalen egoitza izatea da, bereziki hauen hastapenetan eta egonkortzerako bidean lagungarri izateko. Izan ere, gunea partekatuz gastuak merkeago izatea da coworkingaren helburua. Horregatik autonomoen eskaerak izan dute lehentasuna, 6 langile baino gutxiago duten enpresen eskaerak ondoren, eta horiek baino handiagoak direnen eskariek bukatzeko.



Bilera gela ▲



Jateko gela ▲



Partekatutako bulegoa ▲



Saioa Alkaiza,
Nafarroako HITZAN

Giro ederrean ospatu dituzte Urritzola-Gailaingo bestak

Abuztuaren 14tik 17ra ospatu ziren Urritzola-Gailaingo bestak, giro alaian eta herriko eta inguruetakoko partaidetza ikaragarriarekin.

Bestak asteazken arratsaldean hasi ziren ginkana batekin, jarraian haurrendako txokolatada, txupinazoa, entzierro txikia, Anitaren Bilobak taldearen omenaldia eta herriko emakumeek prestatutako afari herrikoia izan zituzten. Egunsentira arte iraun zuen dantzaldiarekin eman zioten bukaera egunari.

Ostegunean Asuncion patroia eguna izan zen. Mezaren ondoren Jose Angel Iragi eta Martin Garro helduei eta aurtien jaioetako Uxue Oyaregui omenaldi kuttuna eskaini zitzaion. Arratsaldean herri kirolak izan zituzten, eta ondoren Mariachis internacional Dominguez taldearen saioa. Eguna amaitzeko, eta bingoaren ondoren, plazan mokadu afaria prestatu zen.

Ostiraleko eguna usadiozko gosariarekin hasi zen: babak txerri-buztanarekin, ardi txuleta eta tirri-tarra. Gero kalejira egin zuten, eta txikieneko jokoak izan zituzten plazan. Tortila eta ajoarriero lehiaketaren ondoren, afari herrikoia izan zuten gauean. Larunbatean Gailaingo eguna ospatu zen eta bertan izan ziren ekimen guztiak: zikero jatea eta kopa itzulua. Gauean saiheski afaria egin zuten Urritzolan, eta ondoren berriro Anitaren Bilobekin dantzaldia.



Iñaki Ezkurra Osakar



▲ Helduei eta jaio berriei omenaldia egin zieten

TURISTOK

2019ko uztailaren 26an

Astebete daramat hondartzan (baina Euskal Herrian), eta zutabe hau argitaratzerako, Pirinioetan egonen naiz, mendian. Euskaldun onaren bidaia. Hegazkin ez, bidaia luzerik ez, kutsadura gutxi eta kontsumo juxtua. Kontzientzia garbiketa zuria, neronen pribilegioak bezainbeste.


Baina oporrak, ai, oporrak, kapitalismoaren troiako zaldi morenotua, etnozentrismoaren zilbor-heste basa, errutinen bloody mary pozoitua; inork ez dizue ukorik egin nahi, ezta nik ere: izan Hego Amerikan, motxila, gitarra, malabare, Las venas abiertas de América latina eta guzti, izan kanpin dendan, musika jaialdi, kanpin gas herdoildu eta musika taldeetako kamisetekin edota mendiko botekin, izan Nuevo Mexikoko resorteetan, bikini zuri eta lastozko txapela, izan furgoneteo guayan, hondartzara begira lo egin eta bertako dutxak aprobetxatuz, zein Torrebellako lagunaren lagunaren pisu turistikoan, zure burua baino handiagoak diren flotagailuekin. Hortxe goaz denok, zuen bila.

Egiatan gureak ez diren bizitza horien irudikapenak dira oporrak, oasi kontsumistak: oro har, erosiko ez genituzkeen gutziak erosteko unea, jantziko ez genituzkeen jantziak janztekoa, egingen ez genituzkeen horiek egitekoa. (...) Zeren eta, zeinek bidaiatzen du(gu)? Zeintzuok eta zeinengana? Zertarako? Urrutira goaz, gu, bidaiari dirudunok, antropologiak erabilpenaren erabilpenaz urratu duen Bestearengana goaz. Besteak: gu ez garen horiek. Haiek, exotikoak diren horiek. (...) Bai eta motxilero alternatiboenak garenean ere.



Euskara errazeko atal berezia estreinatuko dugu hurrengo Pulunpen

Albisteen atalean joanen dira euskara ikasten ari direnei zuzendutako zenbait artikulua. Euskara errazean idatzia eta ulertzeko zailtasunik gabeak izanen dira albiste horiek. Atal berria osatzeko hurrengo hilabeteetan eskualdeko euskaltegi ezberdinekin hitz egitea da Pulunpeko langileon asmoa. Erakunde horiekin elkarlanean atala ahalik eta egokien antolatzen saiatuko gara.



Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina abiatu dute udan eskualdean ▲

Ederbideko Bizikleta Logistika Zentroa aurkeztu dute Imozko Xenden Egunean

Abuztuaren 10ean ospatu zuten Latasan aurtengo Imozko Xenden eguna. Plazaolako geltoki zaharraren biltegian Bizikleta Logistika Zentroa irekiko dute udazkenean, eta egitasmoaren aurkezpena egiteko aprobeztatu zuten festa eguna. Plazaolako eta Bidasoako bide berdeak elkartuko dira Latasan Eurovelo 1 bizikleta bidearen obrak amaitzen dituztenean, eta trenbideko biltegi zaharra berritzeko obrak egin ditu Imozko Udalak azken hilabeteetan. Iraila-

urri aldera irekiko dituzte Biltegiko ateak: jatetxea, taberna eta denda txikia egonen dira eskualdeko bost emakumek abiatu duten proiektuan.

Txirrindulaz eta oinez ibilaldiak antolatu zituzten Xenden Egunean, Latasatik abiatu eta Plazaola iristen den herri ezberdinetara. Goizean zehar Latasan luntxa, txirrindula ginkana eta artisauen azoka ere izan zituzten.



Ederguneko Bizikleta Logistika Zentroaren aurkezpena egin zuten Xenden Egunean ▲

European izan da Ultzamako triatloia

70 pertsonak parte hartu zuten, 7 emakume eta 63 gizon. Euriaren eraginez lokatza artean egin behar izan zuten lasterketa. Amezt.eus-en maila guztien sailkapenak daude ikusgai.

Gizonezkoen sailkapen orokorrean Martín Iraizoz Blanco izan zen hirugarrena. Atarrabian bizi da baina Eltsokoa du aita, eta María eta Ainhoa Iraizozen lehengusua da.

Ultzamar gutxi hartu zuten parte etxeko triatloian, haien artean Tomás Goikoetxea Martín. bost urtez triatloirik egin gabe, berriro hasi da kirol gogor honekin. Lasterketa motza egin zuen, eta 16 partehartzaileen artean zortzigarrena izan zen. Pozik, beraz, emaitzarekin. Ultzamako triatloian parte hartzen duen bostgarren aldia da eta asko disfrutatu zuela esan digu, lokatza artean izan arren: “Nik gustukoa dut horrela dagoenean, hemengoek atsegin dugu lokatza. Dibertigarria izan da ibilbidea niretako, nahiz eta pixko bat arriskutsua izan”.

Guztira 70 pertsonak hartu zuten parte. Ibilbide luzean 47 gizonak eta 5 emakume. Motzean 16 gizonak eta 2 emakume. Sailkapen guztiak amezti.eusen ikusi daitezke.

Abuztuaren 15ean, jai egunean, izan zen triatloia. Leurtzako urtegitik abiatu zen goizeko 11:00etan. 200

(proba laburrean) edo 500 metro (proba luzean) igerian egin ondoren, bizikletaz 17km eta korrika 2,5km egin behar izan zituzten parte hartzaileek. Helmuga Larraintzarko pilotalekuan izan zuten. Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Nafarroako Triatloi Federazioak antolatzen dute ekimena.



Ultzamako triatloia, Tomás Goikoetxea ▲

Ligan izena emateko adina jokalaririk biltzea lortu du Baztango Rugby Taldearen senior mailak

Azken hilabeteetan arriskuan egon da BRTren senior mailaren etorkizuna, euskal ligan izena emateko nahikoa jokalaririk lortzen ez zituztela eta. Entrenamendu irekiak eta jendea taldera batzeko kanpaina abiatu zuten udan, eta dirudienek emaitza onak lortu dituzte. “Lekarozen

zenbaiteste entrenamenduak egin ondoren, lehenagoko jokalaririk zahar batzuk eta aurpegi berriak taldera batzea lortu dugu, ligan izena emateko nahikoa jokalaririk bilduz”, azaldu du taldeak zabal dutako oharrean.



Marta Garcia. Katuka Elkarte, Beramendi

“Zaldiekin eta behorrekin lan egiten duen elkarte da Katuka. Marta Garcia hezitzaileak sortu zuen duela hiru bat urte proiektua, zaldien eta hezkuntzaren arteko lotura egiteko asmoz eta inguruko jendearen laguntza eta babesarekin. Pertsonen nahiz animalien ongizatea du oinarri eta helburu Beramendin kokatuta dagoen proiektuak”.

• Noiztik dator zure zaldiekiko lotura?

Txikitatik izan dut zaldiekin harremana, baina ez modu linealean. Erriberan jaio nintzen eta aitak zaldiak zituen umea nintzenean, baina lau urte nituenean istripua izan nuen, behor batek ostikada eman zidan buruan, eta ordutik ingurukoak asaldatu egiten ziren zaldi batengana hurbiltzen nintzenoro. Azkenean beldurra hartu nion nik ere. Gerora, nerabezaroan, Atetza etorri ginen eta zaldiak ekarri genituen, eta han berriz animaliekin ahalduz hasi nintzen. Baina orduan bi edo hiru zaldi segidan hil zitzaizkidan eta aitak erabaki zuen berriz ez nuela negarrik egingen zaldiengatik: ez zen berriz zaldirik sartu etxean, eta gaiaz ez zen hitzik ere egiten. Baina, zer den bizitza, urteak beranduago, ezer jakin gabe, nire ilobak hasi ziren zaldiak eskatzen. Aitak, beste behin, ez zuen kontra egin eta zaldiak ekarri zituen. Momentu berean ekinoterapiaren munduarekin egin nuen topo nik, eta horrela hasi nintzen berriz.

• Zaldiekin egiten den terapia da ekinoterapia?

Bai, baina terapia ezberdinak daude: ekinoterapia, ekitazio terapeutikoa edota hipoterapia. Nik momentu hartan ekinoterapia egiten zuen neska bat ezagutu nuen, eta gauza asko ulertzen hasi nintzen. Hipika tradizionalak zaldien maneiotik nentorren, eta eredu hori armadatik dator zuzenean: tentsio handiko

egoerak gertatzen dira, oihu asko egiten da... ni blokeatu egiten nintzen hipikan, eta gainera, antimilitarista izanda ez nuen animaliekin manei hori nahi. Pentsa, gaur egun oraindik hipiketan erakusten da zaldira ezkerreko aldetik igo beharra dela, eta hori da garai batean ezpata ezkerreko aldean eramaten zutelako eta zauriak ekiditeko ezkerretik igotzen zirelako. Gaur egun, baina, nork darama ezpata? Ez du zentzurik...

Horregatik, zaldiekin bestelako harremanak lantzen zituzten emakume hauekin topo egitea aberatsa izan zen niretzat eta asko ikasi nuen.



▲ Marta Garcia hezitzaileak inguruko babes eta laguntzarekin sortu zuen Katuka proiektua



▲ Zaldien ongizatea dute oinarri Katukan

Ohartu nintzen, esaterako, animalia osasuntsuak izateko zein garrantzitsua den beren beharrianak asetuta izatea. Ordu arteko ohitura guztiak desegin eta berriz ikasten hastea izan zen prozesua. Orain ulertzen dut zaldiek espazioa, janaria, ura eta konpainia behar dutela, eta hori kontuan izanda, ez da kasualitatea ni Beramendin egotea.

• **Hazkuntza pertsonala zaldiekin lantzeko tailerrak egiten dituzue.**

Bai. Beti kontuan izaten dugu bai pertsonen eta baita animalien ongizatea tailer horietan. Gestalt teoriaren, Couchingaren eta komunikazio lanketaren arteko nahasketa bat izaten dira tailerrak. Leire Etxeberriak eta biok elkarrekin egiten ditugu: bera Gestalt terapeuta eta coucha da, eta psikologia ikasten

dabil orain. Zaldiek hitzik gabeko komunikazioa dute bide, eta gorputz osoa begiratzeko dizute: zu ongi ez bazaude zure gorputza ez da ongi mugitzen, eta hori guztia zaldiek ikusi egiten dute.

• **Bestelako tailer, ekimen eta zerbitzuak ere eskaintzen dituzue?**

Bai, denetik egiten dugu: zaldiak ezagutzeko tailerrak, zaldi gainean jartzeko tailerrak, zaldiak gurdira jartzeko tailerrak, hazkuntza emozionala zaldiekin, heziera naturala, zaldiekin komunikatzen eta jolasten ikastea... Bere jardunean ona iruditzen zaidan jendea gonbidatzen dut tailer ezberdinak ematera. Bestetik, kanpoko zaldiak ere jasotzen ditugu gure lursailetan: jendeak hipiketarik deskantsua emateko zenbait

hilabetetarako ekartzen dituenak, zaldiei jubilazioa hemen ematen diotenak edota besterik gabe beraien animaliak askatasunean bizitzeko hona ekartzen dituztenak. Tokia dugun bitartean harrera egiten jarraituko dugu.

• **Zenbat zaldi eta behor dituzue orain?**

Gureak, bost behor eta zaldi bat, eta besteekin orain osotara 12 ditugu: bi behor eta beraien bi moxal, eta bi zaldi zikiratu. Nireetatik hiru jaio zirenetik daude nirekin, 9 urtekoa 2 urte zituenetik, eta 22 urtekoa duela 6-8 urtetik. Bizitza ona ematen bazaie 30 urte inguru bizitzen dira behor eta zaldiak. Eta taldeko animaliak direnez, bizi diren gainontzeko animalia eta pertsonekin lotura oso estuak egiten dituzte.



▲ Zaldi eta behor guztiak aske izaten dituzte



Aizarotz!

Basaburua, telesail agertokia

Igoako Unai Mendiburu Viguek telesail bat grabatu du gure eskualdean: Owen's blood (Owenen odola) du izena. Mundu apokaliptiko batean gertatutako zientzia fikziozko kontakizuna da, eta 15 urteko gazte honek berak bakarrik gidoia idatzi, telesaila zuzendu eta grabatu du. Horretarako, jende mordoaren inplikazioa lortu du. 30 lagunek egin dituzte aktore lanak, eta inguruko elkarteren baten edo besteren laguntza ere izan du. Grabazio saio batean egon gara haiekin.

Arratsaldeko bostak dira, eta eguraldiak ekaitza dakar, langarra hasi baitu: “euririk egiten badu ere, grabatzen jarraitu behar dugu, eta izorratu, oso zaila baita aktore guztiak koordinatzea egun berean grabatu ahal izateko”, azaldu digu Unai Mendiburuk. Izan ere, 30 lagunek aktore moduan parte hartzea lortu du: 20 ume eta 10 heldu. Eta aktore gisa bakarrik ez, jende asko inplikatu da behar den guztian: Aizarozko bizilagunek afaria eginen dute gaurkoan. Oilasko erreka jaten duten irudi batzuk grabatu behar dituzte, eta haiek hartu dute haragia erosteko eta egiteko ardura. Gainera, Beramendiko Katuka elkartearen zaldiekin ikastaroak antolatzen dituen elkarte- eta “drone” enpresa baten laguntza ere izan dute.

● 6 ORDUKO GRABAZIO SAIOA

Arratsaldeko lauetan grabatu dute gaurko lehenengo eszena, eta bederatzia arte beste sei eszena grabatuko dituzte. Gero, hamarretan elkartzeko gelditu dira berriro, gaueko irudiak egiteko.

Aurreneko pausua arropaz aldatzea da. “Odolez” zikindutakoak janzen ditu aktore bakoitzak, eta jarraian eszena nolakoa izanen den azaltzen die Mendiburuk. Mugikorrean du grabazioaren plana eta egutegia: zer irudi grabatu behar duten, zein

aktoreekin, eta zer esaldi esan behar duten gogoratzen dio zuzendariak berak egindako taula batek. Beraz, aktoreek arropak jantzi dituztenean bakoitza non ipini eta zer esaldi duen esaten die zuzendariak, eta “1, 2, 3 grabatzen ari gara!” oihukatu ondoren hasten da antzezpena. Mendiburuk berak eramaten du kamera eskuetan, zuzendaria eta gidoilaria izateaz gain, kamera lanak ere berak egiten baititu. Oso bizkorra den arren eta energiaz

“ **Herriko 30 lagunek aktore moduan parte hartzea lortu du: 20 ume eta 10 heldu** ”



Katuka elkarteko zaldia erabili dituzte irudi batzuk grabatzeko ▲

gainezka egon arren, lasaitasuna transmititzen du. Aktoreak ez dira profesionalak. Gaurko eszenak bere lagunak diren herriko beste gaztetxo batzuk eginen dituzte, eta askotan barrez lehertzen dira eszena erdian. Horregatik, behin eta berriro grabatu behar izaten dute eszena bakoitza. Baina irribarre batekin egiten du bere lana zuzendariak. Beharrezkoa denean, dena den, esaldia bati kendu eta beste bati ematen dio, ez baitago denbora gehiegirik eta aurrera egin behar baitute. Ongi hartzen dituzte aldaketak aktoreek ere.

• HILABETETAKO LANA

Modu ez profesionalean egiten ari diren arren, hilabeteak behar izan dituzte telesaila aurrera eramateko. Gidoia idazteko eta aktoreak bilatzeko ia urte erdia behar izan du Unai Mendiburuk: “Urteak dira zinema gustatzen zitzaidala konturatu

nintzenetik, eta pelikuletarako arropak diseinatzeko hasi nintzen. Gero, film laburrak grabatzen genituen telefono mugikorrarekin, eta aurrerago profesionalagoa eman dezakeen zerbait egitea nahi nuela pentsatu nuen. Pasa den urtean, udan, dena prestatzen hasteko aprobetxatu nuen”.

Behin dena prestatuta, maiatzean hasi ziren irudiak grabatzen. “Asteburuetan aprobetxatzen dugu grabatzeko, aktore guztiak koordinatzea asko kostatzen baita. Lokalizazioak, pertsonaiak, efektuak prestatu behar dituzu... denborabehar izaten da”, aitortzen digu Aitorrek. Udako oporretan errazago izan dute telesailari bultzada bat emateko. Gero, muntaketa lanak etorriko dira, eta horrek ere denbora eskatzen du; are gehiago fikziozko telesaila izanda. Momentuz, lehenengo bi kapituloak montatu ditu.

“**Momentuz lehenengo bi kapituloak muntatu ditu Unai Mendiburuk. Emaizta ikusteko itxaron beharko dugu dena amaitzen duten arte**”

Diruaren inguruan ere galdetu diogu Mendibururi, nahiz eta telesail amateur bat izan, zerbait beharko baitzuen eta: “Ia arropa guztiak erosi ditugu, odolaren efektua egiteko materiala, kamerak... Horrelakoak oso garestiak izaten dira, eta gutxi gorabehera 400 euro inbertitu behar izan dugu. Ez du zer ikusirik bestelako proiektu batzuekin, askoz garestiagoak izaten dira, baina niretako bada, gaztea bainaiz... Dena den, Donostiako kultur elkarteak finantziatu digu, Donostian irudi batzuk grabatu baitugu, eta horrek ere dirua aurrezteko aukera eman digu. Baina arropa eta gainontzekoa nik ordaindu behar izan dut, nire aurrezkiekin”.

Emaizta ikusteko itxaron beharko dugu dena amaitzen duten arte. “Hasieran, guretako bakarrik egiteko asmoa geneukan, baina askok esan digute ea non ikusi ahalko duten bukatzen dugunean. Ez dugu erabaki oraindik, emanen dizuet horren berri”, dio Mendiburuk. Bada, horixe, **amezti.eus**-en, **Pulunpe**-n eta **Esan Erran**-en jakinaraziko dizuegu non ikusten ahal duzuen **Owen's blood**, adi!



▲ Mundu apokaliptiko batean gertatutako zientzia fikziozko kontakizuna da, eta “odolez” zikindutakoak janzen ditu aktore bakoitzak.







Euskarabentura 2019

Eskualdeko ordezkaritza, Euskarabenturan

Euskarabenturako bigarren edizioa burutu dute uda honetan, eta bertan parte hartu dute Gaskueko Iratxe Mariñelarena Arcek eta Ihabengo Kattalin Agirreurreta Larak. Euskal Herriko zazpi lurraldeak zeharkatzen dituen ibilbidea osatzeko 783 kilometro egin behar izan dituzte, 483 oinez, 31 etapetan, uztailaren 1etik 31ra bitartean.

Izen bereko euskaltzale elkarteak sortu zuen Euskarabentura, Ruta Quetzalen parte hartutako Euskal Herriko hainbat bazterretako 10 gaztek, haren antzeko euskal aldaera bat martxan jartzeko asmoz. 16 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua dago Euskarabentura, eta, aurten, 120 joan dira. Haien artean, Gaskueko Iratxe Mariñelarena Arce, Baltegia etxekoa; eta Ihabengo Bizienea etxeko Kattalin Agirreurreta Lara.

Maulen hasi zuten eta Getxo izan da helmuga. Hiriburu guztiak ez ezik, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatutako guneak bisitatu dituzte;

bai eta basoak, hondartzak, museoak, gari-soroak, baserriak... Haietan, era eta eduki anitzeko mintegiak, tailerrak eta ekimenak burutu dituzte. Izan ere, hainbat esparrutako profesionalak (musikariak, soziolinguistak, aktoreak, bertsolariak, kazetariak, dantzariak, idazleak, kirolariak...) aldiro-aldiro batu dira espediziora gazteekin jakintzak elkar trukatzeko.

• HELBURUA, EUSKARAREN SUSTAPENA

Baina, Euskarabenturaren helburu nagusia gazteen arteko euskararen sustapena eta normalizazioa da.

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako nahiz diasporako gazteek osatu dute oinezko espedizioa.

Iratxe Mariñelarena Arcek aurrekoan parte hartu zuen lagun baten eskutik ezagutu zuen abentura, esperientzia ikaragarria zela esan zion. Burlatako Askatasuna ikastetxean ikasten ari da, batxilergoa, eta euskara irakasleak taldeari egindako gomendioaren ondoren erabakia hartu zuen: "Lehen ez nintzen oso ongi moldatzen euskaraz. Gehienbat horregatik erabaki nuen izena ematea. Hemen ohitura gutxi dugu euskaraz egiteko eta ohiturak aldatzeko modu bat izango zela pentsatu nuen".



Lehenengo ilaran, eskuinean, Iratxe Mariñelarena Arce, Markina eta Gernika arteko bidean. Kilometroak eta kilometroak egin arren, umorea ez zuten galdu.

“

Herriko zazpi lurrealdeak zeharkatzen dituen ibilbidea osatzeko 783 kilometro egin behar izan dituzte, 483 oinez, 31 etapatan, uztailaren 1etik 31ra bitartean

”

Euskara hobetu duela nabaritzen du, eta lagunak egitearekin batera, dioenez, hori izan da esperientziaren alderik onena berarentzat.

● PROIEKTU BATEN AURKEZPENA, GILTZA

Nahiz eta euskararekin ongi moldatu ez, euskarazko abesti bat sortzeko gai izan zen Gaskueko Iratxe Mariñelarena Arce. Hura izan zen espedizioan parte hartzeko sarrera eman zion proiektua, hautaketa egin behar izaten baitu antolakuntzak, eta horretarako hainbat gairen artean bat aukeratu, eta ideia bat aurkeztu behar dute gaztetxoek. “Nik musika eta Bertsoak hartu nuen eta abesti bat aurkeztu nuen. Pianoa jotzen dut txikitatik eta melodia bat nuen buruan, hura hartu eta letra jarri nion”.

Ihabengo Kattalin Agirreurreta Larak, ordea, Ingurumena aukeratu zuen, eta Basaburuko erreken bazterrak zaintzeko ideia bat etorri zitzaion burura, zigarro-puntak gordetzeko ekolilla kaxatxo diseinatu zuen: “Plano teknikoa marraztu nuen, produktua alde guztietatik ikusi ahal izateko. Gainera, produktuaren logotipoa ere egin nuen eta Basaburuko Udalari idatzitako gutun batean azaldu nuen. Idazkian Basaburuko errekan zenbat

zaborra jasotzen den adierazten nion udalari, eta hori ekiditeko nire diseinua aurkeztu nien”.

● ITZULI ONDOREN, LAGUN MORDOA MOTXILAN

“Lagunak egin ditut Euskal Herri osoan. Orain badakit Arabara banoa etxe bat badudala bertan, Iparraldean gauza bera... hori polita da. Azkeneko eguna zaila izan zen: hilabete batez 24 ordu jende berberarekin egotetik, ia-ia ez ikustera pasatzea zaila baita”, dio Kattalin Agirreurreta Larak. Esperientzia hain zen ikaragarria, egunerokotasuna ahaztu egiten zuela berak: “Burbuja batean bizitzea bezala izan zen”.

Biak biziki gomendatzen diete aukera dutenei heldu den urtean parte hartu dezaten. “Ematen du jende oso irekia eta hitzunajoiaren dela, eta horrek, isila edo lotsatia bazara, atzera bota dezake, baina ez da horrela. Talde oso anitza izan gara, eta erraza izan da lagunak egitea”, azaldu digu Agirreurretak.



▲ Parte hartzaileek 483 kilometro egin dituzte oinez. Argazkiaren eskuinean Kattalin Agirreurreta Lara, aurpegia zeharka ikusten zaio.



Emakumeak ez ziren

Elsoko neskatxek ultzi ederra eman Martini.

Zer errana jarri zuten, jarri zuten. Elsoko neskatxek, 1787ko eguberri aurretikoan, ultzi gaitza eman zioten **Perutxeneko** nagusia zen Martin Iraizotzi.

Eta honek salatu egin zituen.

Honek jarritako salaketan, prokuradorearen idatzian, hauxe da datorrena:

Eguberri aitzinean, gaueko zortziak eta bederatziak artean, goatzean zegoelarik, ate joka iritsi zen Jose Benito Goñi, **Sorozabalean** mutil zena, erranez Manuela Eltso, etxeko alabaren gaztiguarekin zetorrela eta ea **Sorozabalera** hurbilduko zen beretako mandatu bat zuela eta. Eta hala konformaturik, Benitorekin batera joan zela **Sorozabalera**. Hara iristean eta bertan zuten artegi estali bateko atetik heldu ziotela eta bertan sarrarazi, eta lepotik, gerritik eta zangoetatik heldu sei neskatxek eta lurrera bota ondoren pantalonak kendu zizkiotela. Eta hala lurrean zutela, iritsi zela Manuela Eltso ziorda batzuekin eta izugarrizko ultzia eman ziotela denen artean, zazpiren artean alegia. Gorputz guztian kolpatu zutela eta erdi elbarriturik utzi zutela hurrengo egunetarako.

Eta bertze xehetasun batzuen buruan denendako zor zuten kastigua da eskatzen duena Martinek, bere ohorea eta izen ona lur jota gelditu direlako.

Zazpi neskatxa horiek, Martinen salaketa jakin ondoren, bere kontrakoa jarri zuten: Ultziarena egia zen, baina ziordak erabili zituztela ez. Gainera, eskatzen zuten azter zedin Martinek herriko jende guzien kontra zerabiltzan izengoiti eta gainerakoak eta, horrela ikusiko zela berak egindako kaltea jasotakoa baino anitz handiago zela. Bukatzeko, Martin kastigatzea eta kostuak eskatu zituzten.

Nola izan zen kontu guzia?

Prozesu osoa irakurri dugu, batez ere, Martinek eta neskatxek deitu zituzten testigu guzien azalpenak. Martinek zazpi lekuko deitu zituen eta neskatxek zortzi, gehientsuenak Elsokoak, baina baita Zenozko batzuk ere.

Goiti kontatu duguna, lekuko hauen azalpenetatik honela osotu dugu gertatua:

Sorozabaleko sukaldean ardia hil eta larrutzen ari ziren, Manuela Eltso etxeko alabak etxeko mutila, Jose Benito Goñi, igorri zuenean **Perutxenera**, Martini **Sorozabaleko** artegira etor zedin errateko. Artegia etxearen kontra zuten.

Ordua eta tokia arraro xamarra! Zer pentsatu ote zuen Martinek? Ez alde batekoek eta bertzeoek xehetasun hau ez dute aipatu ere egiten. Beharbada bi aldeei horretaz aipamenik egitea komeni ez zitzaielako?

Dena dela, amarruz eta jukutriaz ekarrarazi eta zanpatu zuten Martin. Zanparraldiaren ondoren, aieneka eta oihuka alde egin zuen bere etxera, erabat errabiaturik, tranpan erori izana burutik ezin kendurik, mindurik egin zioten burlagatik eta, gehiago oraindik,

pantalonak kendu zizkiotelako, **“ez, hau ez da hola geldituko!”** bere artean hitz erdika erranez.

Bitartean, **Sorozabalean** ardia apaintzez bukatu eta afaria ederra egin zuten, irri-karkailaka, Manuelak kontatu zuenean gertatutakoa. Bertze etxe anitzetan ere berdintsu, Martin lotsagabe zikinaren kontrako ekintza ez baitzen txantxetakoa! Ongi merezia neskatxa gazteek emandako ultzia!

Baina, jakina, Martin ere zozoa ez izaki eta laster mugitu zen. Dudarik gabe, Martinek, Iraizotzko **Iribarneko** semea eta Iraizotzko apezaren anaiak, jakinen zuen zer egin eta ez baldin bazekien, bazuen nori galdetu, eta Jose Benito Goñiren kontra hasi zen eta alkatearengana jo preso har zezan. Hori zuen sokaren punta eta gainera puntu ahulena, mutil zegoen gizagaixo bat bertzerik ez.

Hori ikusirik, Manuela ere larritu zen, eta laguntza bila Zenozko Palazioko nagusi ahaltsuarengana, Bernardo Lasagarengana jo zuen ea honek zer bait egin ote zezakeen eta honi kontatu: **bai, bera izan zela Jose Benito, etxeko mutila, Martin deitzera igorri zuena, eta horrengatik beldur zela zanpaketan tarteko ibilia zela-eta, akusatuko**



Sorozabalea eta bere artegirako arkua ▲

zutela, gauza horrela ezzenean izan, bera erabat urrikaldurik, nesken artean tarteko ibili zela bai, baina gehiegi jo ez zezaten erreguka, eta libre utz zezaten.

Eta bai, Bernardo zerbait egiteko prest zen, nahiz Iraizozko Iribarnekoen ahaide izan, ez zuela adiskidantza handirik Iraizozko apezarekin, baino Zenozko apezaz, Juan G. labenen bitartez saiaturiko zela; eta Bernardo eta Manuela joan ziren Zenozko **Apezetxera** laguntza bila.

Jokoa, etxalde eta buruxkien artean jokaturiko zen: Iraizozko **Iribarnea** eta Eltsoko **Sorozabalekoen** artean, eta bitartekari, Zenozko **Palaziokoa** arituko zelarik. Hiru etxalde zein baino zein inportanteagoak! Eta honek gauzak erraztu beharrean zaildu bertzerik ez zituen egin.

Horrela Zenozko apezak Iraizozkoarekin, Don Pedrokekin egin beharrak egin eta konponbidea jarri zuten: barkazioa eska zezatela eta orain arteko gastuak ordaindu (batez ere kartzela gastuak ziren, ordurako kartzelan baitzeukaten Jose Benito Goñi) Denendako ikusi zuten ez zela komeni kontua gehiegi harrotzea, zabaltzea, eta isiltzea zela hoberena.

Eta hor ikusiko dugu, Bernardo Eltsora joan Manuelaren bila, Iruñean dela, Eltsoko apezari utzi abisua, honek eman gero konponketaren berri Manuelari eta, zertarako? Manuela hitz

Artegia: hemen ziortu zuten Martin



erdika, baina atzeraka:

-Gainerakoei erranen diet eta ikusiko dugu zer egin.

Eta handik bi ordu edo hirura han da Manuela Zenotzen, Palazioan:

-Ez gaude ados, ez barkazioa eskatzearekin eta gutxiago deus ordaintzearekin. Jo dezala nahi duen tokira, geren burua nola defendatu jakinen dugu. Eta gehiago erranen dizut, askoz ere gehiago merezi zuen ahogaizto horrek, jende guzia zikintzen, ezizen eta goitzenak jarriz dabilen horrek, jendearen adina eta egoera ere kontutan hartzen ez dituen horrek.

Eta hau entzun eta, Iraizozko apezari honen berri eman ondoren ere hor

ibiliko da Bernardo jauna bi aldeekin konponketa egin nahian eta herrietan bakea ezarri nahian eta horretarako prest agertu da gastu guzien jabe egiteko. Ez zen gutxi saiatu zena ba! Baina neskaten aldetik ezezkoan zeudenez eta bertze nahigabe batzuk gehitzean, dena utzi zuen Bernardo Lasagak. **Hor konpon!** erran zuen. Bai, etxalde jabeen ohorea, harrotasuna, haserre... ezinezkoa izan zen bakea.



Txurdan

Sorozabaleko fotografia:
Patxi Oskotz.

Hiztegia

Salaketa: denuncia.

Zihorda: zigorra. 1) makil mehea
2) kastigua. Hiztegieta, zigorra

Gaztigua: mensaje, aviso.

Xehetasuna: detalle.

Ohorea: honor.

Lekukoa: testigo.

Amarru: artimaña.

Jukutria: trampa, traicion.

Ahaltsua: poderoso.

Etxaldea: hemen etxalde
onekoa erran nahi du.

Buruxkia: aginte puxka duena.

Ezizena, goitizena: apodo.



Sorozabaleko gaineko aldeko atetxoa. 4 metrotara dago artegia

O'tegi Band & The Neighbors

“Musika denon eskura dagoen adierazpen herrikoi bat da eta bizikletak ere badu unibertsaltasun hori”- Arantxa Agirreurreta.

Ihabengo Bizienea etxeko Otegitarrek eta Agirreurretarek denon eskura jarri dute haien musika Euskal Herriko hainbat txokotan. Eta bizikleta izan da, hain zuzen ere, garraiobidea. Nahiz eta Otegi familia Iruñean bizi den orain, bi familiak Bizienean bizilagunak izan ziren urteetan, orduan Unai Otegi aita musikariak jotzen erakutsi zien umeei. Iaz, instrumentuak bizikleta gainean jarri, eta bira musikala egin zuten Lizarra aldean. Aurten gauza bera egin dute, abuztuaren 16an irten ziren Ihabendik Bidasoatik Donostia aldera eta 22an itzuli ziren Plazaolatik etxera.

• Nola sortu zen, bada?

Mikel: folk rock talde baten birarik iragankorrena izateko helburuarekin hasi zen, hau da, jaio bezain pronto hiltzeko...

Arantxa: baina gure publikoak oholza gainean jarraitzeko eskatu digu (barreak). Ez, ez, broma da... Unai musikaria da, eta gure haurrak berarekin hasi ziren musika ikasten. Bestalde, bizilagunak bakarrik ez, lagunak ginen, besteak beste, bizikletaz bidaia egiten ditugulako. Bizikleta eta musika izan da, beraz, gure lotura handi bat. Orduan, halako batean, bururatu zitzaigun: titiriziklo bat egin genezakeela eta herri herri ibili. Hori da gure ideia: musika adierazpen herrikoi bat da eta denon eskura dago. Eta, hain zuzen, bizikleta ere bai! Unibertsaltasun hori badu. Hor

elkartzen dira bi arloak. Esate baterako, aukera oso polita eman digu jendea topatzeko

• Eta zer moduz moldatzen zarete dena gainean eramateko?

Arantxa: ongi, ongi. Iaz ibilbide oso polita egin genuen. Etxetik bizikletaz irtetea eta ateraino bizikletaz itzultzea da gure helburua: tartean beste garraiorik ez erabiltzea eta autonomoak izatea. Autonomoak baita janariari dagokionez, guk prestatzen baitugu janari gehiena. Iaz etxetik abiatu eta Lizarra aldera joan ginen: lehendabizi Etxaurira, gero Riezura, Riezutik Lizarrara, Lizarratik Artazara, bertatik Arbizura, eta Arbizutik etxera. Kanpinetara eta herrietara iristen ginen eta Unai kalejira egiten zuen jendea abisatzeko: “8:00etan kontzertua egingen dugu kanpineko ez dakit zer

tokitan!”. Aurten Ihabendik Oroketatik gora atera ginen, Gorostietatik; Ondoren Bera eta Beintza Labaien aldera, Doneztebe eta Lesakara, Etxalar aldera, eta gero Jaizkibeltik gora Donostiara; hiriburutik Andoinera trenetara, eta, bukatzeko, Plazaolatik Leizara eta Lekunberrira, eta etxera.

• Zer abesti jotzen duzue?

Arantxa: kanta ezagunak eta herrikoiak dira, errazak, baina moldaketa oso polita egin dizkiete. Harpa, kontzertina-akordeoi txiki bat-, txirulak... oso ikuskizun polita gelditzen da.

Mikel: gainera lau umek instrumentuak jotzeak... harridura sortzen du! Manuk eta Udarak, iaz, 10 urte besterik ez zituzten! Kattalinek eta Ibonek 15 eta 14. Familia asko hurbiltzen ziren kontzertua ikustera.

“**Unai Otegi, Sole Artola, Ibon Otegi, Udara Otegi, Arantxa Agirreurreta, Mikel Lara, Kattalin Agirreurreta eta Manu AgirreurretaK osatzen dute talde titiriteroa**”



▲ Taldea Lekunberrin, jende pila bildu zen. Umeak eta Unai dira kontzertuan jotzen dutenak.



Zergatik okerrak ez zuzendu?

Anuetik Imotza, Baztandik pasatuz (II)

Amaiurra ia urtero joaten ginen gaztetxoak ginenean. Gaztetan Baztanen barna Lapurdira ere bai, eta orduan pasatzen genuen Amaiurko mendatea, **Otsondo** deitzen dena, Amaiur eta Urdazubi artean. Garai haietan erdaraz ziren errepidetako seinale guziak, baina mendate honen kaskoan **Otxondo** jartzen zuen. Noizbait norbaiti euskaraz jartzea gogoratu eta **Otxondo** jarri. Borondate ona bai, baino, oker eta gaizki. Eta geroztik beti hala ikusi izan dut eta hala egonen da, oraintsu aldatu ez badute behintzat.

Hurbilagora etorritik, hor dugu Atetz eta Txulapaingo mugako kontua: Alto de Marcaláin. Iruñeko kazetari, administrazioko gizonak, denek dute aipatzen eta idazten “Alto de Marcaláin”. Eta non da “Ataburu”

izena? Nik beti hala entzun izan diet Imozko eta Atezko bizilagunei behintzat. Baina, jakina, Iruñetik datorrena dago ongi, dirudienez. Betikoa, betitik ezaguna duguna kendu eta kanpoa har... Horrela gabiltza ongi.

Eta Imotzen bertan, Iruñea-Donostia errepide berria, autobia, egin zutela urte andana pasa da. Eta seinaleak jartzerakoan Latasa eta Irurtzongo muga-mugan bi izen: Viaducto de **Larrazpil** eta tunelari Kax**Ar**nako tunela.

Larrazpil Goldarazko mendi kaskoko larre zabal bati esaten diotela banekien, eta izan ere izana nintzen bertan; eta nire baitan, mendi guziak izen hori ote du? Ez, ez da hala, tokitan dago autobiatik **Larrazpil**! Nork eta

zergatik asmatu ote zuen izen hori?

Eta Kax**Ar**narekin ere antzetsu. Caserne, kuartela esan nahi du frantsesez. Frantsesen kontrako Gerra denboran militar postu bat izan zen bertan eta geroztik toki horri Kax**Er**na esan izan zaio. Ba, honetan ere norbaitek, ez dakigu zergatik, Kax**Ar**na jarri dio izena.

Bai, hemen edozein da maisu, euskaldunoi erakusteko edozein gai da, dirudienez. Behin, Berueteko Braulio zenarekin, hau da, **Barrantxekin** hizketan, eta beren etxearen izenaren esanahiaz, hala bota zidan: “Monteroak beti esaten zidan gure etxea noizbait taberna edo **barra** izana edo izanen zela, alegia, Barrenetxea, Bar-etxea edo”. Basaburuko basozain horrek ez zekien euskaraz baina guri erakusteko gai zen!

(Gure alderdian “barrena”, hitzaren esanahia galdua dago baina “**behekoa**” esan nahi du: Oihanbarrena, Etxebarrena, Barrenetxea...)

Ardo txarrak nonahitik ekartzen dizkigute ardo onaren prezioan saltzeko. Eta guk erosi egin behar al ditugu? Zergatik ez ditugu popatik hartzera bidaltzen?

 **Txurdan**



▲ Zorionez hasi dira gauzak ongi jartzen. Orain mendatearen gainean beharko lukete izena jarri.

Hiztegia

Errepide: carretera.

Mendate: puerto.

Txulapain: Juslapeña.



“Jendeak gero eta gehiago eskatzen ditu kalitatezko gauza naturalak”

Javier Gorostidi Espinal Lanzko Zurginenean bizi da eta bertan egiten du lan. Etxearen izenak dioen bezala, zurgintza izan da familiaren ogibidea, eta berarena ere bai duela gutxi arte. Baina bertan sartu, eta ez dago zur usainik dagoeneko, pasten usain gozoa somatzen da orain, gurinaren eta kokoaren usaina. Izan ere, krisiak zura uztera behartu zuen, eta duela urte bat Pastas Miel-Otxin negozio txikiari ekin zion.

• NOIZ HASI ZINEN PASTAK SALTZEN?

Urtebete inguru izanen da. Okindegi batean lan egin nuen, eta konturatu nintzen jendeak gero eta gehiago eskatzen dituela kalitatezko gauzak eta naturalak. Amak pastak egiten zituenez, bada, abentura honetan murgiltzea erabaki nuen. Gainera, ez nuen inbertsio oso handia egin behar, etxean bertan jarri dudalako lokala. Osasunbidekoekin hitz egin nuen, bete beharreko baldintzak ezagutzeko, eta erreforma egin nuen.

• ETA POZIK? ONGI JOAN DA?

Neguan oso ongi joan da, baina egia da udan pasta gutxi kontsumitzen dela, orain geldixamar nabil. Baina ez naiz kexatzen, ihauterietan izugarria izan zen, herriko lehenengo etxean bizi naizenez, kanpoan jarri nintzen mahai batekin pastak saltzen, eta 70 kaxa inguru saldu nituen!

• NOLA EGITEN DITUZU PASTAK?

Nire produktua egun batetik bestera kontsumitzekoa da, ez du inolako kontserbagarririk, natural- naturalak dira. Horregatik, enkargu bitartez lan egin nahi dut. Momentuz bi motatakoak egiten ditut, gurinezkoak eta kokozkoak. Baina zabaltzea da

idea: kremazko bonbak eta erroskak ere egiten hasi naiz.

• NOLA EGITEN AHAL DIRA ENKARGUAK?

Facebook orrialde bat egin dut, eta horren bitartez egin daiteke.

• BAINA ZU ZURGINA ZARA, EZTA?

Bai, nik zurgintzan egin izan dut lan, baina krisian gauzak okertu egin ziren eta aldatzea erabaki nuen. Etxean hasi nintzen zurgin, eta, gero, pabiloi bat jarri nuen herrian. Aurretik, Iruñean lan egin nuen, eta 98 angutxigorabehera etorri ginen hona bizitzera. Hemen

gustura gaude, ez gaude hiritik oso aldenduta, eta aire garbia arnasten duzu, goizeko 5ak badira ere eta Iruñean banaiz ere, nahiago izaten dut hona lo egitera etorri!



Gurinezko eta kokozko pastak egiten ditu. Erroskak eta kremazko bonbak ere egiten hasi da. ▲



Etxean pastak egiteko lantegia egin zuen Javier Gorostidik. ▲

AUKERA GALDURIK?

EZ HORIXE!
IKASI EUSKARA



Bideoa ikusi

GOZATU EUSKARA!

948 012 012

Dirulaguntzak matrikularako

www.euskaraikasi.nafarroa.eus
www.elaide.eus

Antolatzaileak

Udalak: Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzi, Atarrabia, Auritz, Barañain, Basaburua, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Erro, Estella-Lizarra, Esteribar, Etxauri, Galar, Gares, Imotz, Luzaide, Odieta, Oltza Zendea, Orkoien, Uharte, Ultzama, Zizur Nagusia.

Mankomunitateak: Irantzu, Izarbeibar, Sakana.

Batzorde Nagusiak: Aezkoa, Erronkari, Zaraitzu.



Laguntzaileak





Gartzarongo Pilota Txapelketa, eskualdeko kirol ekimenetan erreferente

Ez da egonen Nafarroan pilotari profesionalik frontoirik handienak zapaldu baino lehen Gartzarongo txapelketatik pasatu ez denik: Patxi Eugi, Ruben Beloki, Aimar Olaizola, Abel Barriola, Unai Laso, Peio Etxeberria... zerrenda amaigabea da. Izan ere, historia handiko txapelketa da Gartzarongoa. Jexux Jaunarena, Mikel Jaunarena 'Zepelo' eta Miguel Legarra gartzarondarrak aritu dira urte guzti hauetan txapelketaren antolakuntzan. Beraiekin aritu gara urte guztietako historiaz eta aurtengo edizioaz hizketan.

Hastapenak, 60ko hamarkada hasieran

"1960 inguruan, frontoia egin berritan, jendeak pilotan aritzeko gogo zuen, eta orduan hasi ziren txapelketarekin. Garai hartan jende guztiak jokatzeko zuen pilotan, eta hona etortzen zirenak inguruetak onenak izaten ziren", kontatzen digute Toki Alai Elkarteko kideek. Lehen urte horietan eskualdeko postaria omen zen txapelketak antolatzen zituen, herriz herri ibiltzen baitzen. Hamar bat urtez antolatu zituzten orduan txapelketak, baina etenaldia etorri zen gero.

1985ean Toki Alai Elkartea sortu zuten hiru kideek beste hainbat

herritarrekin, eta orduan ekin zioten berriz ere Gartzarongo Pilota Txapelketa antolatzeari. Geroztik, urte bakar batean ere hutsik egin gabe antolatu dituzte txapelketak. 35. edizioa da aurtengoa, eta Nafarroatik eta Euskal Herritik ez ezik, Errioxatik eta Bartzelonatik ere etorriko dira jokalariak. Badu fama txapelketak, beraz.

Izen-ematean errekorra aurtan

Urtetik urtera geroz eta bikote gehiagok ematen dute izena pilota txapelketan: aurtan, osotara 263 bikote apuntatu dira lehiaketan, inoiz egon den kopuru handiena. "Umeetan 56 bikote, haurretan 54, gaztetxoetan

44, nesketan 7, gazteetan 34 eta helduetan 68 apuntatu dira", azaltzen dute. Azken urteetan bereziki helduen kategoriak egin omen du gora.

Txapelketari uztailaren 20an eman zioten hasiera, eta azarora arte luzatuko da. Larunbat arratsalde eta igande goizetan izanen dira partiduak hilabete guzti hauetan. Giro polita egoten da asteburuetan, elkarteko barra eta sukaldea irekitzen dituzte eta jende dezente hurbiltzen da partiduak ikustera eta egun pasa. Azaro bukaeran izanen dira txapelketako finalak. "Jende asko etortzen da egun horretan: sei partida izaten dira guztira, eta arratsalde osoa hartzen dute partidek. Ondoren, luntxa egiten dugu". Joanen gara emaitzen berri ematen heldu diren hilabeteetan.



Abel Barriola eta Aimar Olaizola 1995eko txapelketan ▲



Mikel Jaunarena, Miguel Legarra eta Jexux Jaunarena antolatzaileak ▲



Haritz ospetsuen

Ezagunak dira Nafarroan eta baita kanpoan ere Basaburuko eta Ultzamako haritzak. *Quercus robur* espezieko haritz kanduduna nagusi da gure eskualdeko basoetan, Lizasoko Orgin, esaterako. Baina, ba al zenekien gure eskualdeko lau haritz Nafarroako Monumentu Naturalen Katalogoan bilduta daudela? Ezagutu ditzagun lau haritz ‘ospetsu’ eta ikusgarri hauek hobekixeago, eta ez galdu udako egun beroetan haien itzalaz gozatzeko aukera!

1) Kisulabeko haritza

(JAUNTSARATS, BASABURUA)

Oinarrian, diametroa: 3,14m. 1,30 metrotan, diametroa: 3,53m. Altuera: 11,60m.

Katalogoko zuhaitzetatik zabalena da, enborraren zirkunferentziak 10 metro ditu. 1991n izendatu zuten ehun urtetik gorako zuhaitz hau Monumentu Natural bere tamaina, dimentsio eta balio ekologikoari esker. Enborrean harakaitzak eta barnehutsak ditu, eta bertan eta inguruan onddoak, likena, goroldioa, ixtorrek edota erlauntzak daude. Bere garaian egurretarako aprobetxatzeko lepatua izan zen haritza, eta horregatik du egun zuhaitz lepatu hauek izan ohi duten kandela forma.



▲ Kisulabeko haritza



▲ Beheitiko zelaiko haritza



▲ Eltzaburuko haritza



▲ Orkingo haritza

2) ‘Beheitiko Zelaiko’ haritza

(JAUNTSARATS, BASABURUA)

Oinarrian, diametroa: 3,05m. 1,30 metrotan, diametroa: 2,75m. Altuera: 29,10m.

Kisulabeko haritzaren antzekoa da, eta hau ere lepatua izan zen bere garaian. Barrutik kasik hutsa dago, baina osasun egoera ona du. 1991n izendatu zuten Monumentu Natural bere dimentsio, adin eta osaera ezohikoagatik.

3) ‘Autsiberriko’ haritza

(ELTZABURU, ULTZAMA)

Oinarrian, diametroa: 1,88m. 1,30 metrotan, diametroa: 1,54m. Altuera: 26,60m.

Adaburu irekiko haritz zabala da, altuera handia hartzen duena. Bost metrotan enborra hiru adar handi bertikaletan irekitzen da. Duela hogeitaz urte inguru tximista batek jo zuen, eta adarretako bat lehortu egin zen. Egund, adar nagusietakoren bat falta bazaio ere, osasun egoera onean aurkitzen da. 1991n izendatu zuten Monumentu Natural.

4) Orkingo haritza

(ARRAITZ-ORKIN, ULTZAMA)

Oinarrian, diametroa: 3,07m. 1,30 metrotan, diametroa: 2,66m. Garaiera: 13,80m.

Haritz lepatu ikusgarria da Orkingoa, adaburu zabal eta biribildua duena oinarri handiaren gainean. Sustrai ez oso sakonak ditu, horietako zenbait hutsuneak sortzen dituzte lurrazalean, zenbait animaliak habi gisa darabiltzatenak, eta harakaitzak ere baditu enbor zabalak. 2009an izan zen Monumentu Natural izendatua bere dimentsio, tamaina eta adinagatik. Haritz honek eta bere inguruneak edertasun handiko paisaia osatzen dute.



2019 urteko efemeride literarioak

Ziur aski ez duzu teleberrietan ikusiko, baina urtero bezala aurten ere badira hainbat efemeride literario, hau da, idazle batzuen jaiotza edo heriotza daten urtemuga (besteak beste, Walt Whitman, Doris Lessing, J.D. Salinger edo Cyrano de Bergerac).

Heriotzak aipatuz, 2019. urtean bi idazle handi hil dira: Montalbano detektibearen sortzailea den Andrea Camilleri, eta Toni Morrison Nobel sariduna.

Andrea Camilleri pasa den uztailaren 17an joan zen nobela beltzako idazleen zerura, **Manuel Vázquez Montalbán** izanen du ondoan. Hain zuzen ere, Camillerik bere protagonistarik ospetsuena Bartzelonako idazlearen omenez izendatu zuen. Camilleri izan da, dudarik gabe, azken urteotan Italiako idazle handienetako bat, baita munduko nobela beltzako ere. Nahiz eta arrakasta Montalbanoen nobelei esker lortu duen, bere liburu autobiografikoak ere oso interesgarriak eta hunkigarriak dira. Adibidez, liburutegian daukagun bat aipatzeko, *La pensión Eva* (bere nerabeko oroitzapenei buruz: mutiko baten sexualitaren iratzarria Italia faxistan). Horretaz aparte beste batzuk aurki ditzakezue gure apalategietan: *La muerte de Amalia Sacerdote* edo *El traje gris* tartean.

Toni Morrison ere hil da uda honetan, pasa den abuztuaren 6an, hain zuzen ere, 88 urte zituela. Idazle estatubatuarra Literaturako Nobel saria irabazi zuen lehen emakume afro-amerikarra izan zen. Bere prosa gogor eta era batean lirikoaz, jazz eta blues ziprztinekin, Morrisonen liburuak arraza, sexu eta klase arteko gatazkaren deskripzio errealistak egiten dituzte, beltzen folklore eta munduaren beste elementu batzuk

(fantasia eta mitoak) ahaztu gabe. Ultzamako liburutegian zain dituzue bere nobela ezagunenetako batzuk: *Beloved*, *Sula* edo *La canción de Salomón*.

Beste emakume Nobel saridun baten efemeridea ere bada 2019. urte honetan. **Doris Lessing**en jaiotzaren urtemuga. Orain dela ehun urte jaio zen Lessing Londresen, *El cuaderno dorado* edo *Belarra Kantari* liburuaren egilea. *Belarra kantari* da idazle honen lehengo eleberria, euskaraz Koldo Navarro itzulia. Istorioa Hego Afrikan kokaturik dago eta heriotza, arrazakeria eta matxismoa gordin islatzen ditu.

Eta *Belarra kantari*-tik *Belar-hostoak*-era, **Walt Whitman** egilearen mendeurrena (kasu honetan bigarrena, 1819ko maiatzaren 31n jaio baitzen) aurten delako. *Belar-hostoak* poesianaren handienetako bat da. Nork ez du gogoratzen bertso hau: “Ni-ari kantzaten diot”. Gure artean **Txomin Artolak** omenaldi bat egin zion Whitmani bere disko homonimoan: *Belar-hostoak*.

Walt Whitman bezala, **J. D. Salinger** estatubatuarra da. Oso gutxi ezagutzen da idazle misteriotsu honetaz, argazki batez eta datu batzuez gain (Nueva Yorken jaio zela 1919an, adibidez) baina bere Zekale



▲ Andrea Camilleri



artean harrapaka eleberria klasiko bat da. Euskaraz irakur daiteke Armiarma web orrialdean (<https://armiarma.eus/emailuak/elkar/salinger.htm>) eta liburutegian ale bat daukagu gaztelaniaz: ***El guardián entre el centeno.***

1919. urtean jaio zen **Primo Levi**, idazle italiarra ere, judutar jatorrikoa. Levi Faxismoaren kontrako

erresistentziaren partaide izan zen eta Auschwitzetik bizirik atera zen. Bere liburuak, Si esto es un hombre, adibidez, nazien basakerien lekukoak biltzen ditu. Liburutegian dauzkagunak hauek dira: ***Sistema periodikoa*** eta ***Kristo Ebolin geratu zen.***

Levi, Lessing, Salinger, Morrison, Camilleri... Munduko edozein

lekutan jaiotako idazleak ditugu gure liburutegian. Liburutegia unibertso bat delako; edo **Cyrano de Bergerac** idazleak (bere sudurra bera baino hamabost minutu lehenago iritsi zen hura, orain dela lau mende jaioa, 1619an) zioen bezala: “Gizaki zintzoa ez da frantsesa, ez espainiarra, ezta alemaniarra ere, gizaki zintzoa munduko hiritarra da eta bere aberria leku guztietan dago”.



Patxi Irurzun

Utzamako liburuzaina



▲ Doris Lessing

ABISUA:

Irailaren 9tik aurrera liburutegiko ordutegia ohikoa izango da:

**astelehenetik ostiralera
16:30etik 19:30era**



Zorionak Aintze!



Zorionak Olain

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com



2019ko ekaina eta uztaila

Gure alderdian, ekainean eta uztailan izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

LANTZ

Lorea eta Malen Beuntza laben ahizpak, Ruben eta Amaia alabak, uztailaren 7an sortu ziren.



▲ Lorea eta Malen bikiak

“ Zorionak gurasoei ”

ODIETA Gaskue

Iraia Ocaña Orrio, Asier eta Juditen alaba, uztailaren 24an sortu zen, **Juankonean**.



▲ Iraia gurasoein

Ezkontzak:

IMOTZ Eraso

Ignacio Javier Gaita Cuellar eta Maria Gloria de Pedro Esteban, Erasoko **Ibaiondo** etxeokak, ekainaren 22an ezkondu ziren. **Ibaiondon** bertan segituko dute bizitzen.



▲ Amaia eta Ion, Santurbanen

ODIETA Ostitz

Ion Latorre Medina, Eltzaburuko **lone-nekoa** eta Amaia Orce Garcia, Ostizko **Likenenekoa**, uztailaren 1ean ezkondu ziren. Iruñean biziko dira.

“ Mila zorion ezkonberriei ”

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

Heriotzak:

ANUE Olague

Antonio Mariñelarena Urtasun, “La-rramendi”, **Kontadoreneko** nagusia, uztailaren 23an hil zen, 88 urtetan.



▲ Antonio Mariñelarena

ULTZAMA Lizaso

Jose Antonio Iraizotz Larraiotz, **Asar-teneko** semea, ekainaren 8an hil zen, 68 urtetan.



▲ Jose Antonio Mandaxeneko Iban bere adiskidearekin

IMOTZ Oskotz

Juana Pagoto Gartzaron, **Etxotoko** etxeokandrea zaharra, ekainaren 15ean hil zen 104 urtetan.



▲ Juanita Pagoto

Eltzaburu

Faustino Gurbindo Larraiotz, **Matxine-berriko** semea, ekainaren 13an zendu zen, 94 urtetan.



▲ Faustino Gurbindo

Zenotz

Pako Mari Larraiotz Gelbentzu, Nartxi Navaroren senarra, ekainaren 26an hil zen, 81 urtetan.



▲ Pako Mari Larraiotz

NEUMÁTICOS BETELU

646 47 41 66

Juan Alonso Ortiz

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

**Zuk nahi duzun tokira joango gara zure
neumatikoak konpontzera
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu**

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



HEMEN DAUDE JADA!

Irailaren 12tik aurrera

BERRIOGOITI-BERRIOSUSO

Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:00 / 16:00-20:00

Larunbat eta igandeetan: 8:30-14:00



NABARREKO

NADA QUE AÑADIR

Eskaerak eta informazioa: 654 352 271

PIPER ERREAK

1,90 €/Kg
-etik aurrera